



EUSKO JAURLARITZAKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZAREN MEMORIA, JENDAURREKO INFORMAZIOAREN IZAPIDEAREN ONDOREN EGINA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN LANBIDEETAN SARTZEARI ETA ARITZEARI BURUZKO EKAINAREN 30EKO 8/2022 LEGEA GARATZEKO DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKOA

Sarrera

Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburuaren 2024ko uztailaren 5eko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideetan sartzeari eta aritzeari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legea garatzeko Dekretu-proiektua egiteko prozedurari. Proiektu testua egin ondoren, 2024ko uztailaren 16ko Aginduaren bidez, Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburuak onartu zuen. Jaurlaritzako lehen Lehenengo Lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko uztailaren 24ko Aginduaren bidez, jendaurrean jarri zen dekretu-proiektua.

Entzunaldiaren izapidearen barruan, honako erakunde hauei bidali zaie proiektua: Euskal Kirol Federazioen Batasunari, Arabako Kirol Federazioen Elkarteari, Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarteari, Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkarteari, Arabako Foru Aldundiari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, kirol-erakunde publiko/pribatuei eta Eusko Jaurlaritzako sail guztiei.

Hori guztia abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikulua betetze arren. Proiektua egiteko prozeduran, honako organo edo erakunde hauei ere eskatu zaizkie nahitaezko txostenak: Emakunde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Kirolaren Euskal Kontseilua.

Informazio publikoaren izapidean emandako informazioa

Dekretu-proiektua jendaurrean jartzeko izapidearen barruan, honako dokumentu hauek aurkeztu dira:

- ⇒ Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritzaren txostena.
- ⇒ Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen txostena.
- ⇒ Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostena.
- ⇒ Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzako Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzaren txostena.
- ⇒ Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren txostena.

Donostia kalea, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

Tel.: 945 01 94 75 – helbide elektronikoa: kirolak@euskadi.eus



- ⇒ Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren txostena.
- ⇒ Txostena, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzako Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzarena.
- ⇒ Txostena, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena.
- ⇒ E. DANTZERTI, Escuela Superior de Arte Dramático y Danza de Euskadi-ren txostena
- ⇒ H. Ibar Ezkerra s. Coop-ren txostena, 2024ko urriaren 7koa.

Jendaurreko informazioaren izapidean aurkeztutako txostenen azterketa eta gogoetak

Jendaurreko informazioaren izapidean aurkeztutako txostenetako askok adierazten dute bat datozela argitaratutako aurreproiektuaren testuarekin, bakoitzaren eremu edo eskumenei dagokienez, edo argitaratutako aurreproiektuak ez diela eragiten bakoitzaren eremu edo eskumenei. Txostenak hurrengoak dira:

- ⇒ Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, 2024ko irailaren 20koa.
- ⇒ Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, 2024ko irailaren 30ekoa.
- ⇒ Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza, 2024ko irailaren 3koa.
- ⇒ Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza, 2024ko irailaren 19koa.
- ⇒ Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza, 2024ko urriaren 16a.

Bestalde, EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundearen 2024ko irailaren 13ko txostenak hiru gogoeta positibo egiten ditu proiektuari buruz:

- *Txalotu egiten dugu berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren alde hartutako konpromisoa, zioen azalpenean jaso eta lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan eta Erregistroari buruzko 18.3 artikuluan zehaztua.*
- *Lanbide-eremu jakin batzuetan emakumeen presentzia areagotzeko finantzaketa-planari dagokionez (bigarren xedapen gehigarria), ziur gaude dagokion zuzendaritzaren eta Emakunderen arteko lankidetzak aukera emango duela plangintza egokia eta xehatua garatzeko, zeinean plana diseinatzeko, gauzatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko baliabide nahikoak eta egokiak bermatuko diren.*
- *" Azkenik, hizkuntzaren erabilera ez-sexistari dagokionez, egindako ahalegina positiboki baloratzen da. "*

Bestalde, aurkeztutako txostenen artean, lau, jendaurrean jarritako Dekretu-proiektuaren testuari buruzko hainbat ohar edo iruzkin eta proposamen aipatzen dute. Esatebaterako:

1. Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzaren txostena 2024ko irailaren 24koa.

2. E. DANTZERTI Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako Eskolaren txostena.
3. H. Ibar Ezkerra sozietate kooperatiboaren txostena 2024ko urriaren 7koa.

Beraz, egokia da jendaurrean jarritako Dekretu proiektuaren testuari buruz aurkeztutako txostenei dagozkien hurrengo oharrak egitea:

1. SEGURTASUN SAILAREN EKARPENAK

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren txostena gai bakar, baino garrantzitsua, lantzen du, Dekretuaren aplikazio-eremua Sail horren eskuduntzen ikuspegitik. Segurtasun Sailaren ustez, aztertu behar da erregulazioak zuzenean eragiten dion bere jardun-eremuari, bereziki polizia-agenteek edo suteak itzaltzeko kidegoetako langileek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian (aurrerantzean, Euskal Akademia) edo antzeko beste zentro batzuetan jasotzen duten instrukzio, entrenamendu eta prestakuntza fisikoarekin lotutako jarduerari eragiten dion.

Sail horrek adierazten du prestakuntza-zentro horietan arreta berezia jartzen dela polizia-kidegoen prestakuntza fisikoan eta suteak itzaltzekoan, arrisku-egoera desberdinetarako. Sailaren arabera, aztertu beharreko araudia aplikatu beharko balitz, horrek esan nahiko luke aipatutako Euskal Akademian edo antzeko zentroetan prestakuntza fisikoko jarduerak egiten dituzten pertsonen ekainaren 30eko 8/2022 Legeak eskatzen dituen kualifikazioak izan beharko lituzketela, bai eskatutako titulazioen bidez, bai titulaziorik gabe lanbidean jarduteko aldi baterako gaikuntzaren bidez.

Segurtasun Sailaren alegazio horri dagokionez, 8/2022 Legeak eta dekretu-proiektuak ez dute beren aplikazio-eremutik kanpo uzten Segurtasun Sailak aipatzen duen EAEko Akademiako pertsonen heziketa edo prestakuntza fisikoa, nahiz eta beren eremutik berariaz salbuesten dituzten «EAEn dauden Indar Armatuen zentroetako prestakuntza fisikoko jarduera profesionalak».

Azken baztertze hori behar bezala arrazoituta dago.

Lehenik eta behin, Indar Armatuen zentroetan prestakuntza arautzeko eskumena Estatuarena da, eta Euskal Autonomia Erkidegoak ez du arautzeko eskumenik. Indar Armatuek beren ikastegi militarrek eta titulazioak dituzte.

Bigarrenik, Indar Armatuetako kideek prestakuntza tekniko sendoa eta, beren lanbidearen ezagutza handia eta prestakuntza fisiko egokia izan behar dituztenez, eremu militarrean denbora luzez ordenatuta daude ikasleen prestakuntza edo prestakuntza hori emateko behar diren kualifikazioak. Adibidez, Lurreko Armadan, prestakuntza mota hori Lurreko Armadaren Gerra Eskolako Gorputz Hezkuntzako Eskola Zentralak ematen du. Eskola horrek, Gorputz Hezkuntzako Irakaslearen eta Instruktoarearen ikastaroen bidez (ofizialei eta ofizialordeei zuzenduta daude, hurrenez hurren), aginte-taldeak gaitzen ditu heziketa fisikoko postuak betetzeko.

Zuzendaritza honek uste du, Euskal Akademia edo bestelako zentruko pertsonalen prestakuntza fisikoa eta kirol-teknikoa, ez dagoela oinarri juridikorik 8/2022 Legetik eta lege garapen Dekretuaren lege ezar eremutik salbuetzita dagoela baieztatzeko.

8/2022 Legeak jarduera fisikoaren eta kirolaren lau lanbide arautzen ditu: Gorputz Hezkuntzako irakaslea, entrenatzailea, Kirol Monitorea eta Kirol Zuzendaria. Argi dago Gorputz Hezkuntzako Irakasle lanbidea titulazio akademikoak lortzera bideratutako hezkuntza-sistemari lotuta dagoela. Beraz, ez du zerikusirik Euskal Akademiaren polizia edo suhiltzaile gisa profesionalki jarduteko ematen den formakuntzarekin. Euskal Akademiako ikasleen prestakuntza fisikoa ez da maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren arautzen den Gorputz Hezkuntzako irakasgaia. Hau da, Kirol Zuzendariaren lanbideak ez du inolako loturarik poliziaren heziketa-zentroekin eta suteen prebentzio eta salbamenduko zentroekin. Era berean, kirol-entrenatzailearen lanbideak "lehiaketara begirako kirolariei eta taldeei" zuzendutako zenbait funtzio barne hartzen ditu. Hori dela eta Euskal Akademiako edo antzeko zentroetako irakasleak edo prestatzaileak baztertu egin behar da, 8/2022 Legean aurreikusitako lanbide-kualifikazioei lotutako kirol-entrenatzaileak izateaz. Hori guztia, hasiera batean eta geroago egingo den ñabardurari kalterik egin gabe.

Hala ere, EAEko Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen Ikastegiko prestatzaileek, ikasleen prestakuntza fisikoaz arduratzen direnak, begirale-lanbidea betetzen dute ikasleak fisikoki prestatzen dituztenean edo kirol-modalitate batzuetan prestakuntza ematen dutenean. 8/2022 Legearen 8. artikulua araberak, begirale-lanbideak "aukera ematen du edozein kirolariri edo kirolari-talderi eginkizun hauek egiteko: plangintza, instrukzioa, ikaskuntza, animazioa, egokitzapen fisikoa, egoera fisikoa berreskuratu edo hobetzea, entrenamendu edo prestakuntza pertsonala, monitorizazioa, kontrola, gida, laguntza, ebaluazioa eta antzekoak, baldin eta jarduera hori kirol-lehiaketara bideratuta ez badago".

Pentsaezina litzateke Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazio publikoek – foru-aldundiek eta toki-administrazioek – nahitaez bete behar izatea, beren langileei dagokienez, 8/2022 Legean aurreikusitako lanbide-kualifikazioen eskakizunak, eta, aitzitik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek berak, zeinak hainbat legegintzalditan bultzatu baitu pertsonen heziketa, egokitzapen fisiko edo prestakuntza fisikoan aritzen direnentzako kualifikazio-eskakizun hori, dispensa edo salbuespen bat formulatzea, 8/2022 Legean berariaz aurreikusita ez dagoena, bere prestakuntza-zentroetako ikasleen prestatzaileentzat, baldin eta, gainera, ikastetxe horietako prestakuntza fisikoaren eskakizunak handiagoak badira seguruenik.

Nolanahi ere, gehitu behar da Euskal Akademiak sobera betetzen dituela, bere irakasleen lanpostu jakin batzuetan behintzat, 8/2022 Legearen lanbide-kualifikazioari buruzko baldintzak. Adibidez, Euskal Akademiak defentsa pertsonaleko kirol-espezialitatearen irakaskuntzari dagokionez egiten dituen plazen deialdietan, 8/2022 Legean eskatzen den gutxieneko lanbide-kualifikazioa baino handiagoa eskatzen da: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatura edo Gradua, gehi gerriko beltzaren betekizuna arte martzialetan. Defentsa pertsonaleko kirol-diziplina ofizialki aitortuta dago Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko otsailaren 10eko Aginduan, zeinaren bidez eguneratzen baita Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinean jasotako kirol-modalitate eta -diziplinen katalogoa. 8/2022 Legearen 8. artikulua aukera ematen du pertsonen heziketa, ikaskuntza, entrenamendu eta egokitzapen fisikoko funtzioak egiteko Jarduera Fisikoaren Zientzietako Graduan, funtzio horiek kirol-diziplina batera bideratuta ez daudenean, baina bai, ordea, unibertsitate-titulu horren bidez lanbidean jarduteko aukera ematen dutenean, eta, gainera, kirol-diziplina horretan prestakuntza espezifiko edo esperientzia egokia dutenean. Baina defentsa pertsonaleko diziplinaren begirale-lanak egiteko aukera ere ematen du, erdi-

mailako edo goi-mailako kirol-teknikariaren tituluarekin. Beraz, Euskal Akademiako begiraleek eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako antzeko zentroek ikasleak judo, karate, igeriketa eta abarren modalitateetan prestatzen badituzte, begiraleei 8/2022 Legean aurreikusitako lanbide-kualifikazioak eskatu beharko zaizkie.¹

Ondorioz, ez da bidezkoa Dekretuan sartzea 8/2022 Legean aurreikusita ez dagoen eta arrazoizkoa ez den bazterketa bat. Euskal Akademiako eta antzeko zentroetako ikasleek ere merezi dute irakasleek edo prestatzaileek gutxieneko kualifikazioa izatea, gorputz- eta kirol-jarduera segurua eta kalitatezkoa bermatzeko. Ikasle horiek ezin dira desjabetu prestakuntza nahikoa duten langileekin gorputz- eta kirol-prestakuntza jasotzeko oinarritzko eskubide batetik, eta Dekretuan baztertu egin behar dira kualifikazio-eskakizunaren salbuespen guztiak. Ondorioz, ez dira Legearen eta Dekretuaren arauetatik kanpo utzi behar polizia edo suteak itzaltzeko profesional bilakatzeko ikasleen prestakuntza-zentro batean kirol-modalitate bateko begiraleak diren pertsonak (atletismoa, eskalada, judoa, taekwondo, igeriketa eta abar).

Gainera, ohartarazten da Euskal Akademian edo antzeko zentroetan polizia, suhiltzaile eta abarretako langileak entrenatzen dituen pertsona bat badago, eta pertsona hori lehiaketetan parte hartzen duten taldeak prestatzen baditu, pertsona horrek argi eta garbi beteko du 8/2022 Legean araututako entrenatzaile funtzioa; Prestatutako proba edo lehiaketa horiek federatuak izan ala ez, ofizialak izan ala ez. Kasu horretan, pertsona horiek 8/2022 Legean entrenatzaileentzat aurreikusitako kualifikazioak bete beharko dituzte. Euskal Akademiak, beharrezkotzat jotzen duenez Ertzaintzako kideek baldintza fisiko ezin hobeak izan ditzaten sustatzeko politika bat ezartzea, batzuetan laguntzak emateko deialdia egin izan du. Adibidez, bertako kideek Polizien eta Suhiltzaileen Europako Jokoen eta beste lehiaketa batzuetan parte hartzeko, modalitate eta diziplina desberdinetan (karatea, judoa, taekwondo, atletismoa, biatloia eta triatloia edo pistola bidezko tiroa).

2. DANTZERTIREN EKARPENAK

DANTZERTIK (Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Eskola) honako hau adierazi du: 8/2022 Legearen 3. artikuluan eta hirugarren xedapenean ezartzen da lege honetan araututako lanbideetan sartzeko behar diren lanbide-kualifikazioak aipatutako edo legetik eratorritako titulu akademikoen bidez egiaztatuta ahal izango direla.

Aurrekoa oinarri hartuta, DANTZERTIK eskatzen du Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetako Graduak titulu baliokide gisa onartzea. DANTZERTIren aburuz gradu horretako tituludunak gai dira 8/2022 Legean araututako jarduera fisikora sartzeko eta bertan jarduteko. Lehenik eta behin, dantza jarduera fisikoa delako, bere izaeragatik; eta, bigarrenik, gradu horretako ikasketa-planak gaitasun profesionalak garatzea ahalbidetzen duelako osasunaren, hezkuntzaren, gorputz-tekniken, gorputz-egokitzapenaren, taldeen psikologiaren eta proiektuen garapenaren eta kudeaketaren arloetan, besteak beste.

Beraz, gradu horretako tituludunak jarduera fisikoa egiteko gaitutasuna dutenez, DANTZERTIK tituludun horiei dagozkien lanbide-kualifikazioak legeaz aitortzeko eskatzen du. Zehazki, dekretu-

¹Adibidez, Lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduan, zeinaren bidez deitzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langileen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak eta onartzen baitira prozesu horiek arautu behar dituzten oinarri espezifikoak.

proiektuaren 2. atalan ekainaren 30eko 8/2022 Legeak eskatzen duen titulaziorik gabe lanbidean jarduteko aldi baterako gaikuntzari buruzkoan, bosgarren puntu bat gehitzea proposatzen da 7. artikuluan. Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez gaitzea ", eduki honekin:

"5. 8/2022 Legearen 3. artikuluko 4. puntuaren arabera, lege horretan araututako lanbideetan sartzeko behar diren kualifikazioak lege horretan azaldutakoen baliokideak diren titulu akademikoen bidez egiazta daitezke. Beraz, otsailaren 16ko 22/2016 Dekretuak edo erregelamenduzko xedapenek araututako Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzetako graduko tituludunak gaituta geratuko dira jarduera fisikora sartzeko eta bertan jarduteko, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta. Pertsona horiek Erregistroko pertsona gaituen atalean ere agertuko dira '.

ANTZERTIren proposamenari hainbat gogoeta egin behar dira: Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetako Gradua duten pertsonak ezingo lirateke modu generikoan gaitu kirol-arloko lanbide guztietan sartzeko eta jarduteko; izan ere, 8/2022 Legeak oso lanbide desberdinak arautzen ditu: Gorputz Hezkuntzako Irakaslearen lanbidea, Kirol Begiralearen lanbidea, Entrenatzailearen lanbidea eta Kirol Zuzendariaren lanbidea.

Gorputz Hezkuntzako irakasle izateko kualifikazio-eskakizunak hezkuntza-legerian zehazten dira, eta ez 8/2022 Legean; beraz, dekretu-proiektuak ezin du lanbide horretarako gaikuntza orokor hori onartu. Izan ere, gorputz-hezkuntzako irakasgaia emateko behar diren kualifikazioak arautzen dituen araudian ez da sartzen Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetako Gradua.

Adibidez, 187/2023 Errege Dekretuak, martxoaren 21ekoak, uztailaren 2ko 860/2010 Errege Dekretua aldatzen duenak, derrigorrezko bigarren hezkuntzan edo batxilergoan irakasle izateko ikastetxe pribatuetako irakasleen hasierako prestakuntzarako baldintzak arautzen dituenak, Gorputz Hezkuntzan sartzeko honako titulazio akademiko hauek ezartzen ditu:

Kirol-monitorearen lanbideari dagokionez, ondoriozta daiteke, halaber, Dantzako unibertsitate-titulu hori duen pertsona bat ezin dela, jakina, orokorrean gaituta egon edozein kirol-modalitate (errugbia, boleibola, arku-tiroa, futbola, eskubaloia, saskibaloia, bela, piraguismoa, etab.) irakasteko edo ikasteko.

Era berean, ondorioztatu behar da Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetako gradua duen pertsona ez dagoela kualifikatuta lehen aipatutako kirol-modalitate horietako entrenatzaile izateko, ezta, ondorioz, Kirol Zuzendariaren lanbidean jarduteko ere.

Gainera, ohartarazi behar da 8/2022 Legeak berariaz uzten dituela aplikazio-eremutik kanpo, 2. artikuluko 5. apartatuan, "dantza-jarduerak eta kiroletakoak ez diren dantzak".

Dantza-arloko prestakuntza duen pertsona batek ezagutza onak izan ditzake, beti dantzari ezarrita, anatomiar, biomekanikari, sistema muskuloeskeletikoaren funtzionamenduari eta prozesu patologikoei buruz; baina horrek ez du pertsona kualifikatu bihurtzen errugbiaren, surfaren, parapentearen, eskaladaren eta abarren arloan prestatzeko. Zalantzarik gabe, dantzako goi-mailako ikasketak egiten dituztenek prestakuntza bikaina izango dute prestakuntza fisikoari dagokionez, baina, batez ere, dantzari aplikatuko zaio, ez igeriketari, surfari edo errugbiari. Dantzako goi-mailako ikasketak egiten ari diren pertsona horiek aukera dute kirol-arloko lanbideetan jarduteko beharrezkoak diren lanbide-kualifikazioak egiaztatzeko eta hainbat bidetatik eskuratutako lanbide-gaitasunen aitorpena eskatzeko.

3. IBAR EZKERRA S. COOP.en EKARPENAK

IBAR EZKERRA S. COOP. zentroak (aurrerantzean, IBAR EZKERRA) lau alegazio aurkeztu ditu.

Lehenengoa, proiektuaren 8.1 artikuluan «*erdi-mailako kirol-teknikaria edo baliokidea*» eta «*goi-mailako kirol-teknikaria edo baliokidea*» aipatzen direnean, egungo idazketaren ordeztu, honela idazteko proposatzen du:

2 3/2008 Legea aldatzen duen maiatzaren 14ko 7/2015 Legeak gehitutako xedapen gehigarria.

erdi-mailako teknikaria edo baliokidea.

goi-mailako teknikaria edo goi-mailako teknikaria edo baliokidea.

Bi dira argudioak aldaketa horren aldekoak: lehena, "teknikoa" terminoa "kirol-teknikaria" terminoa baino zabalagoa dela, teknikarien artean kirol-teknikariak zein lanbide-heziketakoak sartuta. Bestalde, erakunde alegatzaileak adierazi du, gaztelaniaz, hizkuntza inklusiboa ("*técnico*"-"*técnica*") duen testu bat proposatzen dela. Haren ustez, Dekretu-proiektua dagoen bezala idatzita, badirudi lanbide-heziketako titulaziorik ez dagoela edo txikiagoak direla, edo onartuko den dekretu-proiektua araubide bereziko kirol-irakaskuntzen titulazioetarako egindako arau juridikoa dela, eta ez Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren eremuan esku hartzen duten lanbide-heziketako titulazio guztietarako.

Zuzendaritza honek ez dio eragozpenik jarri IBAR EZKERRAK aurkeztutako proposamenari, bat baitatuz erabat erakunde alegatzaileak adierazitako arrazoiekin. "Kirol" adjektiboa kentzeak proiektua hobetzen du. Kontuan hartu behar da 8. artikulua helburua kasu bakoitzean eska daitekeen gutxieneko esperientzia orduan kuantifikatzea dela, lanbide-kualifikazioaren mailaren arabera (erdi-mailako gradua, goi-mailako gradua edo unibertsitate-gradua). Eta eskatutako gutxieneko esperientzia horrek berdina izan beharko luke erdi-mailako kualifikazioak eskatzen diren kasuetarako, lanbide heziketakoak edo araubide bereziko kirol-irakaskuntzetakoak diren kontuan hartu gabe. Era berean, ezin da ahaztu 8/2022 Legeak erreferentzia ugari egiten dizkiela Lanbide Heziketako tituluen katalogoko jarduera fisikoen eta kirol-jardueren lanbide-arloko teknikari-tituluei, eta, ondorioz, titulu horiek ere erreferentzia izan behar dutela eska daitekeen gutxieneko esperientziaren ordu-kuantifikazioan.

Bigarren ekarpena, hamabigarren xedapen gehigarriari buruzkoa da. Ordezko testu bat proposatzen da: "Dekretu honen ondorioetarako, ekainaren 30eko 8/2022 Legean eta beste arau-xedapen batzuetan profesionaltasun-ziurtagiriei buruz egiten diren erreferentziak 3/2022 Lege Organikoan aurreikusitako lanbide-ziurtagiriei egindakotzat hartuko dira..." jartzen duen lekuan, honako hau jarri beharko liriteke:

"Dekretu honen ondorioetarako, ekainaren 30eko 8/2022 Legean eta beste arau-xedapen batzuetan profesionaltasun-ziurtagiriei egiten zaizkien erreferentziak 3/2022 Lege Organikoan aurreikusitako lanbide-ziurtagiriei ere egindakotzat hartuko dira..."

Bestetik gabe, "ere" adberbioa gehitzen da. IBAR EZKERRAren argudioa da martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoak eta uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuak "ziurtagiri profesionalen" berritasuna ezartzeak ez duela esan nahi profesionaltasun-ziurtagiriek eta haien baliozkotasunak galdu egiten dutenik edo izendapen-aldaketa automatikoa direnik. Haren ustez,

proiektua idatzita dagoen moduan, badirudi profesionaltasun-ziurtagiri bat duen pertsonak bere eskubideak galduko dituela, ziurtagiri profesional bat eduki dezakeen ala ez kontuan hartu gabe. Antzeko zerbaitekin konparatzeko, IBAI ESKERRAK azaldu du lizentziatua ez dela desagertu unibertsitate-titulua gaur egun graduatua delako. Gainera, IBAR EZKERRAK adierazi duenez, oraindik ez daude ezarrita eta ez dira aplikatzen Jarduera Fisikoen eta Kirol Jardueren arloko ziurtagiri profesionalak. Horregatik, uste du agian goizegi edo azkarregi izango dela horrelako xedapen gehigarri bat jartzea, eta une honetan ez dagoela ezer ezarrita.

IBAR EZKERRAren proposamenari dagokionez, bi gogoeta egin behar dira. Alde batetik, ez zaio eragozpenik jartzen proposatutako testuari, "hori ere" adberbioa gehitzen baita. Adberbio horren helburua profesionaltasun-ziurtagiriei buruzko aipamenak nabarmentzea da, eta, horiek ziurtagiri profesionalak ere hartzen ditu bere baitan. Antzeko zerbait gertatzen da kirol-araudiak argitzen duenean "kirol-klubak" terminoak kirol-sozietate anonimoak eta kirol-elkarteak ere barne hartzen dituela. Bestetik, ezin da esan hamabigarren xedapen gehigarria goiz gehitu denik, alegazioa aurkeztu duen zentroak egiten duen bezala, nahiz eta ziurtagiri profesionalak oraindik ez dauden ezarrita Jarduera Fisikoen eta Kirolen familian. Izan ere, ziurtagiri profesionalak jasota daude ekainaren 30eko 8/2022 Legean eta 659/2023 Errege Dekretuan, hau da, duela urte batzuetatik hona.

Halaber, IBAR EZKERRAK proposatu du, xedapen gehigarri bat gehitzea, aldi baterako gaikuntza emateko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian ezarri diren uretako jardueretan parte hartzen duten pertsonen segurtasuna babesteko jardueretan (uretako sorosleak). Aipatutako xedapenaren 4. puntuaren arabera, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen lehen xedapen iragankorrean ezarritakoa ere aplikatuko zaie (Legean eskatutako kualifikaziorik gabe lan egitea). IBAR EZKERRAK adierazi du dekretu-proiektuan adierazten direla boluntarioran edo antzekoan egindako lanbide-jardueretarako gaikuntzak, baina ez zortzigarren xedapen gehigarrian jasotako sorosleentzat. Horientzat ere aipatzen da aldi baterako gaikuntzaren aplikazioa, eta, beraz, Legearen garapen horretan sartu beharko litzateke.

Zuzendaritza hau ez da ikastetxearen proposamen hori egitearen aldekoa, hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, Dekretu Proiektu hau kirol-arloan eskumena duen sailak sustatzen du, ez baita eskuduna uretako sorospenaren arloan. Igerilekuetako sorosleen kualifikazio-eskakizunak Euskal Autonomia Erkidegoan onartu izan dira tradizioz, Osasun edo Osasun Sailak sustatutako hainbat dekreturen bidez, Autonomia Estatutuan barne-osasunaren arloan aurreikusitako eskumenean oinarrituta, eta ez kirol-arloan.

Horregatik, hain zuzen ere, uretako soroslearen edo uretako soroslearen lanbidea ez denez kirol-lanbidea, lanbide-kualifikazioari buruzko aurreikuspena sartu behar izan zen xedapen gehigarri baten bitartez; izan ere, Araugintza Teknikaren Jarraibideen arabera, xedapen gehigarriek aukera ematen dute "testu artikulatuan oro har araututakoez bestelako egoera juridikoak xedatzen dituzten araubide bereziak" sartzeko.

Proposamen hori baztertzeko beste argudio erabakigarri bat da dekretu-proiektuan aurreikusitako gaikuntza-sistema kirol-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren esku-hartze administratiboan oinarritzen dela, eta ez Osasun Sailaren esku-hartze administratiboan. Orain formulatutako eragozpenak ez du eragotzi behar Osasun Sailak dagozkion xedapenak sustatzea edo ematea, 8/2022 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian jasotako aurreikuspena betetzeko.

Azkenik, IBAR EZKERRAK proposatzen du xedapen gehigarri bat gehitzea, zehazteko eta argitzeko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren 2.e) puntua

Lanbide Heziketako tituluen katalogoko jarduera fisikoen eta kirol-jardueren lanbide-arloko erdi-mailako teknikariei eta goi-mailako teknikariei buruzkoa dela. Ikastetxe horren arabera, Legeari buruzko Legebiltzarraren irizpenaren 3. zuzenketa teknikoan, hura onartu aurretik, hau adierazten zen: «Teknikariei ere zabaltzen zaie ...». Horrek esan nahi du aurreko idazketan goi-mailako teknikariak bakarrik bazeuden, eta onarpenarekin goi-mailakoak ez diren teknikariei ere zabaltzen bazitzaie, espiritua eta helburua teknikari guztiak (bai erdi-mailakoak, bai goi-mailakoak) barne hartzea zela. IBAR EZKERRA zentroak adierazi du eremu batzuetan teknikariei buruzko erreferentzia hori erdi-mailako teknikarientzat soilik dela, baina ez goi-mailako teknikarientzat.

Zuzendaritza honek ez du beharrezkotzat jotzen xedapen gehigarri bat sartzea, honako arrazoi hauengatik:

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak sustatzen duen dekretu-proiektuaren helburua da jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideak erregelamendu bidez garatzea, eta ez uretako soroslearen lanbidea. Osasunaren arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sailak sustatu beharko du zortzigarren xedapen gehigarriaren erregelamenduzko garapena.

Bestalde, IBAR EZKERRAK zortzigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuko e letraren zentzuarri buruz egiten duen interpretazioarekin bat etorritik, ez da beharrezkoa argitzea, hainbat arrazoiengatik. Printzipioz, testuak hitzez hitz dioena kontuan hartuta ("Gorputz- eta kirol-jardueren lanbide-arloko beste edozein teknikari-titulu"), zailtasunik gabe sar daitezke erdi-mailako teknikariak eta goi-mailako teknikariak. Auzitegi Gorenak behin eta berriz esan duenez, *"ez da onargarria (...) artikulua berak ezartzen ez dituen salbuespenak aitortzea (ubi lex non distinct nec nos distinguere debemus)"*, *are gehiago testua bere aurrekari parlamentarioekin interpretatu behar denean*. Nolanahi ere, Kode Zibilaren 3.1 artikulua arabera, *"Arauk beren hitzen berezko esanahiaren arabera interpretatuko dira, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari dagokienez, batez ere arauen espiritua eta helburua kontuan hartuta"*. Aztertzen ari garen kasuan, erraz egiazta daiteke zortzigarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoaren e) idatzatiaz, hasieran, goi-mailako teknikariaren tituluarri buruzko aipamen eskusiboa sartu zela, eta zuzenketa tekniko bat aurkeztu zela, "goi-mailako" adjektiboa kentzea proposatu zuena. Legebiltzarrak azkenean onartu zuen zuzenketa horren justifikazioak ez du zalantzarik uzten: idazketa berriarekin "erdi mailako teknikariengana zabaltzen da, haien prestakuntzak eta legeriak bermatzen baitute dagokion jarduera garatzeko kualifikazioa".²

Dekretu-proiektuan egindako aldaketa gehigarriak

Jendaurreko informazioaren izapidearen ondorioz egindako aldaketak alde batera utzita, beste aldaketa batzuk egin dira behin-behineko testuan:

1. Proiektuaren 10.2 artikuluan ezartzen denez, erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko izapide elektronikoa bete ondoren, interesdunak automatikoki eskuratuko du gaikuntzaren behin-

²Auzitegi Gorenaren zigor-arloko bigarren salaren 2020ko uztailaren 10eko 389/2020 Epaia (osoko bilkura). 2428/2018 kasazio-errekurtsoa.

behineko inskripzioa justifikatzen duen dokumentua. Dokumentu horretan jasoko dira Erregistroko inskripzioari buruzko datuak, erantzukizunpeko adierazpenaren edukiaren arabera, "eta administrazio-egintzaren ebazpenaren ondorioak izango ditu".

Kendu egin da "eta administrazio-egintzaren ebazpenaren ondorioak izango ditu" esaldia, nahasmena sortzen baitu erantzukizunpeko adierazpena eskaera bat hasi eta administrazio-ebazpen batekin amaitzen den administrazio-prozedurarekin nahasten denean.

2. 19. Artikuluaren 4. paragrafoan honako aipamen hau sartu da: erantzukizunpeko adierazpenaren eredu normalizatuan dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitako gutxieneko informazioa sartuko da, eta bertan gutxieneko eduki bat jasotzen da.

3. 19.5 artikuluan argitu da erantzukizunpeko adierazpena jarduera hasi aurretik aurkeztu behar dela. Euskadiko nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenen araubideari buruzko maiatzaren 21eko 63/2024 Dekretuaren 9. artikuluko irizpideei jarraitu zaie.

4. Aldatu egin da 19.8 artikuluan erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko ezarritako epea. Aurreko proiektuan esaten zen erantzukizunpeko adierazpena hilabeteko epean aurkeztu behar dela, jarduera hasten denetik, hau da, ondoren.

Argi geratzen da jarduera hasi aurretik aurkeztu behar dela, eta hilabeteko epea funtsezko datuak aldatzeko kasura mugatu da.

Ondoren erantzukizunpeko adierazpena aurkezten den beste kasua Dekretua onartu aurretik kirol-arloko lanbideetan ari ziren pertsonen buruzko xedapen iragankorra da.

5. 21.1 artikuluan, 8/2022 Legearen 12.4 artikulua dioena errepikatu da: erantzukizunpeko adierazpena aurkezte hutsak aukera emango du, oro har, aurkezten den egunetik lanbidean jarduteko, egiaztatze-, kontrolatze- eta ikuskatze-ahalmenei kalterik egin gabe. 2016an, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoan Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Lege Proiektuari buruz, eta proposatu zuen argitu dela ez gaudela baimen-sistema baten aurrean.

Horrela, erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak hiru funtzio betetzen ditu:

- a) Aurkezten den egunetik aurrera lanbidean jarduteko gaitasuna ematen du.
- b) Erregistroan behin-behinean inskribatzeko aukera ematen du.
- c) Erregistroan inskribatzea eskatzeko betebeharra betetzat jotzeko aukera ematen du.

6. 22.5 artikuluan honako aurreikuspen hau gehitu da: lehen laguntzak eguneratzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko gehieneko datatik sei hilabete igaro ondoren, inskripzioa automatikoki ezereztuko da, nahiz eta geroago beste inskripzio bat eskatu ahal izango den. Horren helburua da urte askoan aktibo ez dauden pertsonak ez agertzea Erregistroan.

7. Erregistroko ezerezte errepikatze, 6. apartatua gehitu zaio 22. artikuluari. Apartatu horrek berekin ekarriko du interesduna behartuta egotea lanbide-jarduera uztera, hargatik eragotzi gabe jarduerari berriro ekitea, Erregistroan erantzukizunpeko beste adierazpen bat aurkeztu ondoren.

8. Hamalagarren xedapen gehigarria gehitu da, turismo aktiboko enpresetako teknikariei buruzkoa.

Xedapen gehigarri horren arabera, ezartzen da ezen kirol-monitorearen eta kirol-zuzendariaren lanbideetan jarduten duten turismo aktiboko enpresetako teknikariek, turismo aktiboa arautzen duen araudian ezarritako betekizunez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideetan sartzeari eta aritzeari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legean aurreikusitako kualifikazio-, erregistro- eta aseguramendu-eskakizunak eta gainerakoak bete beharko dituztela.

9. Epeak bateratu dira.

Dekretu-proiektuan aurreikusitako epeei dagokienez, kendu egin da bigarren xedapen iragankorraren bigarren apartatua, zeinak 3 hilabeteko epea ezartzen baitu erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko, baldin eta jarduera profesionala Dekretua indarrean jarri ondoren baina 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen hasten bada. Aurreikus daitekeenez, dekretua ez zen argitaratuko 2025ean oso aurreratuta egon arte, baina ezin zen aurreko data mantendu.

Izpta.: Gorka Iturriaga Madariaga

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria.